

# **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure produktua aurrera eramateko, eta irabaziak ateratzeko hainbat jarduera egin behar dira, funtsezkoak direnak noski; horretarako, asko egin beharko dugu bezeroak bilatzeko eta konbentzitzeko gure produktuaren inguruan. Gutaz fidatzeko detaile txikiei jarri behar diegu arreta handia azkartasunari, itxurari, betetako zerbitzuari... adibidez.

Hori gauzatzeko taldekide bakoitzak zeregin bat edukiko du; bakoitzak trebetasun ezberdinak dituelako eta faktore hori ondo etorriko zaigu proiektua aurrera eramaten dugunean, hala ere, ezin izango dugu gure kabuz enpresa eraman, horretarako egongo dira funtsezko elkarteak.

Gutako bakoitza enpresaren sektore bakoitzeko jabea izango da: Alvaro komunikazioaren ingurukoa, Joseba diruaren kontuarena eta Iñaki lan gunearena.

Garraioaren kontuan, Iñaki ibiliko da buru belarri, Joseba, berriz, furgoneta kargatzen eta deskargatzen ibiliko da eta Alvaro, Iñakiren "GPS-a" izango da, berak esango dio nora joan behako den eta hau guztia mapa baten bidez argi azalduko dio. Lehen esan bezala, talde lana egin dugu garraioaren kontuarekin baina bakoitzak lan desberdinak eratur.

Alvaro adibidez, harremanetarako eta propaganda egiteko oso ona da; beraz, bera arduratuko da guregana datozen bezeroei eta telefonoz deitzen dutenei kasu egiteaz. Enpresako telefono berak erabiliko du batik bat, bezeroak eta informazio eskatzaileak errespetuz tratatu eta haiek eskatutakoa egingo du, haiek enpresa serio bat garela ikusteko eta gudan konfiatzeko. Bera izango da modu batean gure enpresako errepesante publikoa, berak enpresa maneiaturiko du publikoaren begietara. Bera izango da ere edozein tratu edo elkarte egiterako garaian beste enpresa edo elkarteekin kontaktuan arituko dena, bai telefonoz edo dena delako tokian. Beraz ofizinetan egongo da, bai bertara doazen jendeari edo telefonoz deitzen dutenei erantzuteko.

Joseba ordea, ekonomialari gisa arituko da, hortaz bere kargu utziko ditugu zenbaki eta paper guztiak, bere abileziak ekonomia eta zenbakiekin bat datozelako, eta oso organizatua denez, ondo eramango ditu burokrazia

guztia. Bera ofizinan egongo da, eta ekonomia kontuen arduradun edo koordinatzailea izango da, eta gure proiektua oso ondo ateratzen bada, pertsonal gehiago beharko dugunez hark koordinatuko ditu, baina, hasteko Joseba bakarrik egongo da. Gure enpresa martxan dagoela, bera izango da nominak etab. eramango dituen. Beraz Alvaroz gain, bera ere telefonoa erabiliko dlana behar bezala egin al izateko.

Iñaki aldiz, materialaz arduratuko da, berak interneten bidez (edo beste enpresa bati erosita) eskuratuko du beharrezko materiala produktuen mantenua eta piezen aldaketa egin ahal izateko, beraz Iñaki lokalean atzera eta aurrera ibiliko da. Kasu honetan berak egingo du eskaria, eta arazoren bat balego, Alvaro jarriko zen kontaktuan. Berarekin beste 4 langile ere arituko dira esku lanak egiten. Beraz Iñaki lan gunean ibiliko da denbora gehiena, hango beste pertsonen teknikari bezala, eta berak ere mantenu eta konpontze lanak egingo ditu. 5 egongo dira danera. Beraz, lan guneko koordinatzailea Iñaki izango da.

Langile hauek ezagunak dira, eta gaien oso adituak. Gertukoak direnez, haiengan konfiantza asko daukagu, eta harreman ona izango dugu beraiekin. Mantenu eta konponketan oso onak izango dira, nahiz eta haietako bi oraindik ikasten segi haien ikasketetan. Gainera ez da beraien lehen lan esperientzia konponketa gaietan, beraz, nahiko adituak dira gai hauetan eta lan ohitura bat daukate.

Garraioari dagokionez, guraso baten laguntza edukiko dugu, paketeak jaso edota bidaltzeko. Eskaria oso handia bada garraio enpresa batekin kontaktuan jarriko gara, haien zerbitzuak kontratatzeko, DHL adb. Haiekin tratu batera iritsiko gara, eta gure bezeroarekin aurrez paktatutako leku batera eramango dizkiete produktuak.

Publizitatea ere egin beharko dugu, aditzera emateko eta bezero berriak lortu ahal izateko, hortaz publizitatea jarriko dugu hainbat foro edo web orrietan. Gure web orrian ere jarriko dugu, irabazi iturri gehiago edukitzeko, baina, hasieran enpresa bakar batena jarriko dugu, gure web orria gutxi kargatu eta hortaz erakargarriagoa egiteko.

**EKOZIR**